

**UPV /EHU-REN GRADUKO ETA MASTERREKO TITULU  
OFIZIALEN JARRAIPENERAKO PROTOKOLOA**

**2012ko ekaina**

(2015eko azaroaren 5eko Gobernu Kontseiluaren  
Erabakiak eguneratuta)

## **Atarikoa**

UPV/EHUK graduako eta masterreko titulu berrien jarraipenari ekin dio IKD beraren hezkuntza-ereduaren barruan, hau da, bikaintasuna bilatzen duena prestakuntzan etengabeko hobekuntzaren bitartez. 2010/2011 ikasturtean, UPV/EHUK abian jarri zuen programa pilotu bat graduako eta masterreko tituluen jarraipena egiteko. Lehenik eta behin, UNIBASQek bi master ofizialen izaera esperimentalala ebaluatu du. Graduei dagokienez, ehundu programa sortu zen, tituluen curriculum-garapena bultzatzeko; haren bitartez, ikastegi gehienek konpromiso-agiri bat sinatu dute jarraipenerako oinarrizko adierazleak kontuan hartzeko. Azkenik, 2011ko azaro eta abenduan esperientzia pilotu bat jarri da martxan graduako titulazioen Jarraipen Txostenak egiteko. Azken programa horren testuinguruan, kalitate-batzordeek, ikastegietako zuzendaritza guztiekin batera, prestakuntza jaso dute tituluen jarraipenari buruz. Esperientzia horren emaitza izan da bi master ofizialek eta graduako titulu guztiek 2010/2011 ikasturteko lehen jarraipen-txosten pilotua egin dutela.

## **Erreferentzia-markoa**

Titulu ofizialen jarraipenak egiteak helburu bikoitza du. Batetik, prozesu horrek baliagarria izan behar du Unibertsitatearentzat, tituluen ezarpenaren emaitzak ebaluatu ahal izateko; eta, bestetik, jarraipenak balio behar du etengabeko hobekuntzako erabaki-hartzeen prozesua bideratzeko eta, hartara, unibertsitate-hezkuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen 861/2011 Errege Dekretuak aldatutako 1393/2007 Errege Dekretuak ezarritako terminoetan haiek egiaztatzeke baldintza egokiak bermatzeko.

Jarraipen-prozesuak unibertsitateak berak egindako lehen fase bat du; fase horretan, tituluen jarraipen-txostenak egiten dira, eta, bigarrenean, txosten horien kanpo-azterketa egiten da, kasu honetan, UNIBASQen eskutik. Jarraipen-txostenak frogatzen dira Agentziak egiten dituen ebaluazioetan tituluen egiaztatzearen berritzea egin ahal izateko.

Tituluen jarraipen-protokolo honek UNIBASQ, Euskal Ebaluazio Agentziak ezarritako irizpideei erantzuten die, 2011ko otsailaren 21eko Ebazpenean ezarritakoarekin bat eginik (2011ko martxoaren 22ko EHAA).

Tituluen jarraipenari buruzko aipatu ebazpenaren arabera, Agentziaren aldetik kanpo-jarraipena egingo zaie graduako eta masterreko tituluekin lotutako honako alderdi hauei:

a) Titulu bakoitzari buruz unibertsitateak argira atera behar duen ikasleentzat eta, oro har, gizartearentzat egoki eta garrantzizkoa den informazioa. Informazio publiko horrek eguneratuta egon behar du, objektiboa izan behar du, eta, gutxienez, honako hauek izan behar ditu:

- Egiaztatu den tituluaren memoriaren ezaugarri aipagarrienak.
- Ikasturte bakoitzeko ikasketa-planaren zehaztapen operatiboa, irakaskuntza-planaren, irakasleen eta ikasleen lanerako eta ebaluaziorako orientabide espezifikoaren zehaztapenak identifikatzeko.

Unibertsitateak bermatutako tituluei buruzko eta haien web helbideei buruzko informazio publiko guztiaren balioduntasuna bermatuko du.

b) Jarraipen-txostena lantzea erraztuko duten gutxieneko adierazleen multzoari dagokion informazioa.

c) Kalitate-bermerako barne-sistemaren ezarpenaren baloraziotik eratorritako informazioa, aurkitutako arazoak eta haiek konpontzeko hartu diren erabakiak identifikatzeko.

d) Agentzien txostenetan ezarritako gomendioen ondorioz egin diren ekintzak.

Jarraipena epe honetan egiten da: tituluaren ezartzen den unetik, tituluaren egiaztatzea berritzeko ebaluazioa egin behar den unera arte (berritzea egin ondoren berriz ere hasten da zikloa). Kontuan hartuz arautegiak ez duela nahitaezko periodikotasuna ezartzen eta, batetik, arduradunentzat gehiegizko lana ekarriko ez duen eritimoa mantendu nahi dela prozesuan eta, bestetik, prozesuak berak Agentziari tituluaren ezarpena behar bezala balioesten lagunduko dion emaitzak eskaini ditzan bilatzen dela, erabaki da unibertsitateak bi urtean behin bidaliko dizkiola txostenak Agentziari. Hala ere, unibertsitateak gradu eta masterreko ikasketen planen ezarpenaren jarraipena behar bezala egiteko informazioaren eta beharrezko adierazlearen urteko jarraipena egingo du.

Tituluaren jarraipenean zuzenean parte hartzen duten eragilearen kudeaketa-karga murriztu eta titulu ofizialen jarraipen-txostena egiteko erraztasun guztiak ematearren, UNIKUDE kudeaketa integralerako informatika-sistema erabiliko da; hartan, Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren berrikuspenak ikastegiaren Urteko Kudeaketa Txostena eta tituluaren Jarraipen Txostena egitea dakar, haren prozesu nagusietako bat bezala.

### **Jarraipenaren xedea**

Jarraipenaren xedea UITE (Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluaren Erregistroan) izen emandako gradu eta masterreko unibertsitate-titulu ofizialak dira, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen ezarpen eta ezeztapenari buruzko uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuaren 27. artikulua eta urtarrilaren 20ko 11/2009ko Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenaren arabera.

### **Unibertsitate-titulu ofizialen jarraipen-txostenak**

Unibertsitateak bi txosten-eredu landuko ditu: graduaren jarraipen-txostena (GTJT) eta masterrekoa (MTJT).

Gradurako eta masterrerako erantzen den ereduarekin osatuko da txosten hau (I. eta II. Eranskinak).

Kasu bietan, txostenak honako zati hauek izango ditu:

1. Erabilgarri dagoen informazio publikoa, deskribapena eta analisia.
2. Tituluaren sartutako aldaketak.
3. Tituluaren jarraipena egiteko ezarri diren adierazleak, tituluaren emaitzaren analisia bat barne.
4. Titulu bakoitzaren kalitate-bermerako barne-sistemaren ezarpenaren emaitzak, besteak beste, atzemandako indarguneak eta ahulguneak, eta hartutako hobekuntza-neurriak, baita Agentzien ebaluazio-txostenetan adierazitako charren eta gomendioen tratamendua ere.

GTJT eta MTJTak kontuan hartuz, unibertsitateak irakaskuntza ofizialen egoera osoa islatuko duen gradu eta masterreko titulu guztien ezarpenaren analisia egin ahal izango du.

## **Txostenean proposatutako aldaketak**

Urriaren 29ko 1393/2007 EDren 28.1 artikulua, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolakuntza ezartzen duenak, 861/2010 EDk aldatua, ezartzen du ikasketa-planen aldaketak unibertsitateek onartu behar dituztela haien estatutuen edo arauen arabera, eta, egoki denean, autonomia-erkidegoak emandako arautegiaren arabera; betiere, **unibertsitateen autonomia akademikoa errespetatuz**. Era berean, aipatu artikulua 2. atalak ezartzen du aldaketek UITEren (1509/2008 EDk arautua) edukiari eragiten diten kasuan, Unibertsitate Kontseiluari jakinaraziko zaizkiola, eta hark, era berean, eskumena duten kalitate Agentziei eskatuko diela izaera aginduzko eta loteslea duen txosten bat. Agentziaren iritzian, aldaketa horiek ez badute aldaketarik ekartzen UITEren izen emandako tituluaren izaera eta helburuetan, Agentziak proposatutako aldaketak onartuko ditu, eta unibertsitateari jakinaraziko dio hiru hileko epean. Gainera, epe hori igaroko balitz txostena egin gabe, unibertsitateak aldaketa-proposamena onartutzat joko duela dicen arau ezartzen du.

Bestalde, Unibasqeko Zuzendariaren 2012ko urtarrilaren 24ko Ebazpenak -euskal unibertsitate-sistemaren graduako tituluaren ikasketa-planen alde aurreko txostena egiteko protokoloari publikitatea ematen dionak- honako hau ezartzen du: "Graduko unibertsitate-tituluak ematen dituzten ikasketa-planetako oinarritzko aldaketak Unibasqi bidaliko dizkiote unibertsitateek, hark, hiru hileko epean, txosten bat egin dezan. Oinarritzko aldaketa bat da jarraipen-txostenean hala hartzen dena".

## **Oinarritzko aldaketak**

Oinarritzkotzat hartzen diren aldaketak, eta, ondorioz, alde aurretik UNIBASQen baimena eskatuko dutenak, tituluaren definizio administratiboko alderdiei dagozkie:

- Tituluaren izena
- Programaren arduradun den erakundea (ikastegi- / sail- / institutu-aldaketa)
- Parte hartzen duten unibertsitateak (unibertsitate arteko masterretan, loturak haustea edo unibertsitate berriak sartzeak ezinbestean ekarriko du aurreko titulua iraungitzea eta berri bat egiaztatzea; beraz, aldaketa oinarritzkoa da)
- Tituluaren espezialitateak (oinarritzkoak diren datuak baitira eta ikasleen tituluaren agertuko dira)

baita haien funtsezko ezaugarri akademikoei ere:

- Tituluaren programa nola ematen den (aurrez aurrekoa / aurrez aurrekoa ez dena)
- Tituluaren kreditu kopurua guztira
- Tituluak dituen kredituen banaketa
- Titulura sartzeko baldintzak
- Programaren nahitaezko gaien egitura: tituluaren gaitasunei edo/eta tituluaren kreditu-banaketari eragiten diten aldaketak irakaskuntzaren plangintzan, edo graduatan aipamenak eta masterretan espezialitateak ezabatzea edo sartzea.

Oinarritzkotzat hartzen diren alderdi hauetako edozeinen aldaketa-proposamenak tituluaren egiaztapen-prozesu bat hastea eta aurrekoa iraungitzea ekarriko du. Proposamenak aldeko ebaluazioa izanez gero, titulu berria UITEren izen emango da, ikasketa-plan berria BOEn argitaratuko da, eta aurreko tituluak iraungitze-prozesuari ekingo dio.

## **Oinarrizkoak ez diren aldaketak**

Oinarrizko aldaketetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, beste kasu guztietan, unibertsitateak aldaketak baimen ditzake tituluen jarraipen-prozesuaren ondorioz, aldez aurreko baimenik eskatu gabe, baina honako baldintza hauei lotuta:

- Aldaketa bakoitza justifikatu eta dokumentatuko da jarraipen-txostenean.
- Titulazioaren diseinua egituratu eta ezagutzera emango da, egiaztatze-prozesuaren dokumentazioan dagoena; onartutako aldaketak sartuko dira informazio publikorako konpromisoa bete dadin eta tartean dauden eragile guztiek (ikasleek, irakasleek eta gizarteak) ikuspegi eguneratu bat izan dezaten beti.

## **Aldaketen tramitazioa**

Proposatu diren aldaketa guztiak, Ikastegiko Kalitate Batzordeak txostenaren gainerako edukiekin batera balioetsi ondoren, Jarraipen-txostenean sartu beharko dira, "proposatutako aldaketaekintza" gisa, eta Zentroko Juntak onartzen baditu, AADBri bidaliko zaio hark aztertu eta kalifika dezan.

AADBk balioetsi eta onartutako aldaketak ikastegi arduradunaren balioespen positiboa izaten den unetik gauzatu ahal izango dira.

## **Hainbat ikastegitan emandako tituluen jarraipenerako txosten erantsia**

Ikastegi batean baino gehiagotan ematen diren graduko tituluen kasuan, haiek ematen dituzten ikastegi bakoitzak titulu bakoitzerako egindako Jarraipen Txostenez gainera, partekatutako tituluen koordinatzaileek txosten erantsi bat landuko dute, honako hauek biltzeko:

- a) Modu bateratuan tituluari eragiten dioten proposatutako aldaketak, hura bakarra baita unibertsitatearentzat.
- b) Jarraipen-adierazleen emaitza globalak, tituluaren Egiaztapen Memoriaren 8. puntuari erantzuna ematen diotenak. Horretarako, UNIKUDEk tituluen adierazle orokorrak emango dizkie tituluetakoko koordinatzaileei, informatuak izan daitezten.

## **Graduko eta masterreko Jarraipen Txostena lantzeko prozedura**

Graduko eta masterreko tituluen jarraipena horietaz arduratzen diren ikastegietan hasten da.

Titulu bakoitzaren jarraipen-prozesua Kalitate Bermerako Barne Sistemaren ezarpenetik hasten da, eta irakaskuntzaren garapenari buruzko informazioa eman behar du urtero. Horretarako, erreferentzia gisa hartuko dira, batetik, egiaztatutako titulu-proposamena, eta bestetik, egiaztatutako ikasketa-planaren memoria hobetzeko arian-arian sartutako aldaketak. Sistema hori tituluari berezkoak zaizkion prozeduren, prozesuen eta mekanismoen ezarpenaren berrikuspen eta hobekuntza gisa hartu behar da, akatsen atzematea hobetzeko eta egiaztatutako titulu-proiektua hobetuko duten mekanismoak ezartzeko.

Txostenaren zirriborroa idazteko ardura tituluaren koordinatzailearena da, Ikastegiko Kalitate Batzordearekin batera.

Unibertsitateak beharrezko adierazleen informazioa eskainiko du jarraipen-txostenak egiteko, urtean behin, eta urriaren 30ean, UNIKUDE aplikazioaren bitartez, datu-segidan behar bezala balioetsi ahal izateko, tituluen Kalitatearen Barne Bermerako Sistemari aurreikusi den moduan.

Tituluei jarraipena egiteko ardura dutenek titulazioaren aurreko ikasturteko berrikuspena egingo dute Unikude aplikazioaren bidez.

**Urriaren 31n** aurreko ikasturteko **aktak**, gradu amaierako edo master amaierako lanenak barne, **itxita** egon beharko dira. .

**Azaroaren 1etik 20ra** Gestio Akademikoaren Zerbitzuak, 15.11.01ean GAUREn dauden datuetatik abiatuta, datu akademikoak **bateratuko ditu** errendimendu fitxategiak sortzeko eta fitxategiok Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Unibertsitate Informaziorako Sistema Integratu (SIU) bidaltzeko.

**Azaroaren 21etik aurrera**, ikastegi bakoitzean jarraipenerako autotxostenaren ardura duenak dokumentu hori prestatu eta aurkeztuko dio **Ikastegiko Batzarrari**, gradu eta master profesionalen kasuan, eta Master eta Doktorego Eskolako **Kontseilu Iraunkorrari**, gainerako masterren kasuan. Batzordeok **urtarrilaren 15a baino lehen onartu** beharko dituzte txostenak.

Jarraipenerako txostenak behin onartuta, Unikuderen bidez telematikoki bidaliko zaizkie gradu eta masterreko ikasketen arloko eskumenak dauzkaten errektoreordekoei, haiek otsaila amaitu aurretik Gradu Batzordeari eta Graduondoko Batzordeari **aurkezteko** eta, azkenik, UNIBASQera **bidaltzeko**.

### **Xedapen iragankorrak**

1. Aldaketak, AADBra izapidetu eta Batzorde horrek urgentziaz onartutakoak, hurrengo ikasturtean sartuko dira jarraipen-txostenean.
2. AADBk protokolo honetan ezarritako funtzioak izango ditu, baliokideak diren beste organo batzuek haien gain hartzen ez dituzten bitartean.

### **Azken xedapenak**

1. Kalitate eta ikasketa berrikuntzan eta gradu eta master ikaskuntzan ardura duten errektoreordeak ahalmentzen dira prozedura hau ezartzean sortzen diren zeinahi auzi interpretatu eta ebazteko, baita hura garatuko duten arau osagarriak emateko ere.
2. Prozedura honetan edo hau garatuko duen hartan aurreikusi ez diren alderdiei dagokienez, indarrean dagoen legeriak ezarritakoari jarraituko zaio.
3. Prozedura hau Gobernu Kontseiluak onartzen duen unetik aurrera ezarriko da.